

Joxan Arbelaiz gogoratu¹

Julian Albistur Aranburu

Doinua: Afrikako gerrarenak

1

Otsaila berez da hotza,
aurten gainera mingotsa
da Joxanen heriotza.
Zamalbidetako Auzolan ez zen
harentzat leku arrotza;
bizitza hain da zorrotza:
frontoian bertan hilotza;
minbera daukat bihotza.

4

Ikasturte gogorretan
ikastolan (Oreteretan)
jardun zuen heziketan.
Joan aurretik ezagutzeko
aukera ona benetan:
guraso-talde lanetan,
laguntza beti horretan...
Geroztik nago zorretan.

7

Andra Marin abeslari:
presidentea kantari.
Musikasten zerbitzari...
Eta Oarso aldizkariko
batzordean zen gidari.
Bizitzan hainbat opari,
maite zuen herriari
egin dizkio ugari.

10

Pertsona oso argia,
euskara berriz garbia;
kulturan abangoardia.
Burua ongi jantzia eta
jakitunen ausardia.
Lanerako energia:
garraiatu du gurdia
bere bizitza erdia.

2

Heldu denean ekaitza
erasaldi bortitza
bat-batean kenduz hitza.
Gertatu dena ezin ulertuz
guztiok hemen gabiltza:
sendo zegoen haritza
ihartzea ulergaitza.
Zein gogorra den bizitza!

5

Santo Tomas Lizeoan
izango dute gogoan
ziur nago, luzaroan:
irakasle nahiz zuzendaritzan
murgildu zen zeharo han.
Berdin kultura arloan,
beti euskara giroan
jarduera oparoan.

8

Kulturgintzan zutabea,
hezkuntzan paregabea:
iaioa eta trebea.
Harremanetan gizon aparta:
harrokeririk gabea;
pertsonekin ezin hobea.
Amaitu zaio bidea,
arrastoa utziz, ordea.

11

Hark eskainitako hura
iturri garbiko ura
funtsean denez kultura:
herri honentzat opari bat da
sortu izana mundura.
Orain datorkit burura:
gizon handien modura
merezi du eskultura.

3

Bere lagunen laguna
eta oso ezaguna,
mila lanetan jarduna.
Otsailak hamar, beltza izan da
herri honentzat eguna:
hil zaio seme kuttuna,
bizitza baita zurruna;
pena da daramaguna.

6

Beste kargu bat bizitzan,
gorenako kulturgintzan:
Zuzendari Jaurlaritzan.
Gregorianoko taldekidea:
kantu ederrak elizan.
Urte zaharretan Ereintzan,
herritar xumeen gisan...
Joxan horrela bizi zan.

9

Zintzoa bezain apala,
umila eta leiala;
enbor oneko ezpala.
Benetan tratatu errazekoa,
ez da izan gizon makala.
Herrian zuen itzala
luzea bezain zabala
herritar jator bezala.

12

Izar berriak distira
egiten du urrutira:
guztiok gaude begira.
Seguruena haren keinuak
herrirantz zuzendu dira,
beraren Erreterira:
hark maite zuen tokira,
senitarteko kabira.

1. Kolaborazio lan hori 2009ko Oarso aldizkariari dagokio, baina beste lan batekin izandako akats bat zela medio ezin izan zen argitaratu. Hori dela eta barkamena eskatu nahi diegu autoreari eta irakurleei. Erredakzio taldea.



Foto: J M Lacunza. Homenaje a Joxan Arbelaiz el 29 de noviembre de 2009.

